

# Asha-Kiran Fundazioa Indian

## Asha-Kiran

**A**sha-Kiran Fundazioa osatzen duten pertsonen helburua da Indian ahultasun egoeran dauden haurrentzat bizitasun, autonomia eta ongizatea garatzea ahalbidetatzen dieten maitasun, zaintza, babes, segurtasun eta partaidetza guneak sortzea. Eginkizun hori betetzeko, sortze tailerrak antolatzen dira, besteak beste, haurrek Mendebaldeko borondatezko langileen eskutik parte hartu dezaten. Tailerrek haur kaltebereri ahalbideratzen diete beren aukerak handitzea eta beraien adierazpena askatzea; borondatezko langileen bizitza aberasten da, beren artea partekatu eta esperientziak bizitzean, bakarrik haur horiekiko harreman hurbila egin baitezake.

Lehen aldiz, 2010ean antolatu zuen ekitaldi bat Erreterian Asha-Kiranek: elkartasun afari bat Batzoki jatetxean (jantokia bete zen). 2011. urtean, Indiako haurren argazkiak baliatuta, erakusketa bat antolatu zen Xenpelar kultur etxean. Urte horretan, aurten bezala, elkartasun afariak ere antolatu ziren Batzoki jatetxean, Fundazioak Indian martxan dituen proiektuen erreportajeak eskainita. Beraz, neurri batean edo bestean, jadanik Asha-Kiran ezaguna da Erreterian.

Oraingoan, interesgarri deritzogu Fundazioaren lanaren onura hartzen duten gizataldeen egoera hurbiletik bizi izandako pertsona bat elkarriketatzeari. Ane Mujika, bi aldiz Pune-ko sortze tailerretan borondatezko langilea izan dena; hiri horretantxe egiten du lana Asha-Kiranek haur, nerabe eta helduekin.

### Lehen bidaiak - 2008ko abendua

#### Hasieran zergatik egin zenuen borondatezko lan hura?

Nire alaba Garazi Indian egona zen lehenago, eta herrialdea ezagutzera animatu ninduen. Bere bitartez Uttam Modenes ezagutu nuen, Asha-Kiran gobernu kanpoko erakundearen (GKE) presidentea eta sortzaileetako bat dena. Hori horrela, iruditu zitzaidan erakunde horren bidez haurrekin lan egitea aukera hobezina zela hara joateko eta haren proiektuen onura hartzen zuten haurrekin konpartitzeko beharra asetzeko.





### **Ba al zenuen Asha-Kiranen proiektuen berririk Indiarra joan aurretik?**

Oso gutxi nekien. Nahiz eta nire alabak eta Uttam-ek herrialdeari eta lan hari buruzko zerbait aipatu, hara iristean dena berri-berria izan zen niretzat: herrialde hartako pertsonen eta haurren egoerarekin harremanetan jarri nintzen biziki.

### **Nolako borondatezko lana egin zenuen lehen aldiz?**

Nire proposamenaren abiapuntua eguneko zentroetako eta Tashodharako harrera etxeko haurrekin lan egitea zen. Bi zentro horiek Pune hirian ditu erakundeak, Mumbairen hegoekialdean 150 kilometrorra. Haurrak bizi diren inguru marjinaletan daude zentroak, eta harrera etxea beste auzo batean kokatutako bizileku zabal eta argitsua da.

Bi tailer antolatzea proposatu zen, buztzingintzako eta pinturako, oso jardura erakargarriak direlako eta arlo horietan eskarmentu nahikoa genuelako.

### **Esaguzu nola joan ziren tailerrak.**

Koregaon Park-eko zentroan, egunero 22 haur inguru hurbiltzen ziren, nahiz eta askotan helduak ere etorri; beraz, gero eta partaide gehiago ziren. Bigarren zentroan –Phule Nagar– bertara etorri ohi zirenekin batera, alboko auzoetako haurrak eta heldu batzuk hurbiltzen ziren: egun batzuetan 35 pertsona ere elkartzen ziren. Yashodharako harrera etxean, bertan bizi ziren haur guztiek parte hartzen zuten –guztira 21–, eta langileetako batek ere bai.

Buztingintza tailerrean, helburua sormen goiztiarra bizkortzea zen, zeren eta, askapena eragotzen duten blokeo mentalak daudenez, geroago zaila izaten baita. Horregatik, pertsonaren nortasuna osatzen ari direnean eta inguruarekiko harremanak eraikitzen ari direnean egin behar dira bizkortze saiokak.

Pintura tailerrean adierazpena lantzen zen, haiek epaitzen ez zituen espazio bat sortuta, betiere partaideek askatasunez margotzeko esperientzia izan ahal izateko, sortzeko ahalmenaren garapenari erreparatuta. Espazio horretan jolas natural baterako baldintzak beteko ziren berriro, haurrak bere posibilitateak aurkitu eta pertsona gisa bere burua finkatze aldera.

### **Nola bizi izan zituzten haurren tailerrak?**

Proiektu guztiak praktikaren bidez sendotzen doaz eta, kasu honetan, proiektua egokitu behar izan zen, lan baldintzak, espazioa, tokia, partaideen idiosinkrasia eta erabilitako materiala zirela medio. Lanaren ondorioz, elkar aberastu eta emozio, sentsibilitate eta ustekabeak elkarri trukatu genizkion. Haurrek erakutsitako





partaidetza, dedikazioa, lanari eman izana eta gogoia ikusirik, erruz bete ziren helburuak, nahiz eta lan prozesu guztietan sortzen diren arazo teknikoak izan.

Tailerretan haur asko zeudenez eta ahozko komunikazioa zaila izan zenez, askotan haurrenganako arreta ez zen izan guk nahi bezain pertsonalizatua, baina horri esker haurren komunikazioa eta egokitzapena bestelakoak izan zen, beren kabuz aukera berriak aurkituz, eta lana egitean logika erabili zuten.

Lanlekuen arteko aldeak antzeman genituen, batez ere sormenari dagokionez: eskolatu gabeko haurrek askatasun handiagoz lan egiten zuten; besteak, aldiz, ikasketa sistemak are baldintzatuago zeuden (kopia, ikurrak, estereotipoak...). Yashodharako etxean, eskolak sortze prozesu batean eragin zitezkeen mugez gain, beraien segurtasun faltak, beldurrak edo besteak bezala jokatu edo egiteko beharra islatzen ziren. Eragin horiek guztiak oso presente zeuden oraindik beren bizitzetan, beraiek bizitako errealitatearen ondorioz.

Interesgarriena da bakoitza irekitzen eta lasaitzen hasi zela, nor bere erritmoan, eta pixkanaka bakoitzaren lana bakarra izan behar zela eta balioa horretantxe zegoela ulertu zuten. Batez ere pinturako azken bi saioetan antzeman genuen haurrak hartzen ari ziren lasaitasuna eta segurtasuna, bai eta kopia bazterrean utzi izana eta pinturarekin gozatu eta lanarekin gogobeteta egona ere.

Argi dago adierazpenaren mundura hurbildu ginela eta, horren bitartez, haurrengana hurbildu eta beren esperientziak biziki partekatu genituela.

Gure iritziz, haurrek oso ondo baloratu zuten lana, partaidetza eta inplikazioa. Nolanahi ere, lana bukatutakoan haurrek beren aurpegian islatutako gogobetetze eta eskertze begirada baino ebaluazio hoberik ez dago.

### Nola bizi izan zenuen Indiako kultura?

Lehen aldiz Indiaren eta Mendebaldearen artean sentitu nuen aldea gogorra izan zen, baina aldi berean azalekoa, zeren eta aste pasatxoko tartean, lan prozesu bizi batean sartuta nengoelarik, ez zegoen denbora askorik han bizitutako guztiaz jabetzeko. Bigarren bisita batean, eta behin aurreko prozesuaz ondo jabetuta, haien baloreak eta beren bizitzaren ikuskera hobeto ulertzen joan ziren.

Ezinbestez, talka egiten dute Mendebaldeko baloreek eta beraien baloreek: guretzat pertsona "emankorrek eta errentagarriak" izateak du garrantzia; haientzat, ordea, egunerokotasuna bizi dute, askoz harago joan gabe. Nahiz eta erosotasun materialez inguratuta bizi arren, etengabe



kexatzen gara eta estres giro iraunkorren bizi gara; haiek, ordea, benetan oso bizimodu gogorra izaten dute eta kanpoko atsekabe puntualik gabeko momentu bakoitza gozatzen dute eta irri-barrea beti prest izaten dute. Gainera, erlijio sinesmenen ondorioz, beren bizitza urrats bat gehiago da bidaia luze batean; guretzat, ordea, bizitza bakarra eta "behin betikoa" da.

## Bigarren bidaiak - 2011ko uztaia

### Zer eraman zintuen hara itzultzera?

Lehen bidaiaren ondoren, jendeak, beren begiradek eta alaitasunak erakarri ninduten. Nahiz eta hizkuntza desberdinak erabili, pertsonak benetan ongi etorria nintzelako irudipena adierazi zidaten. Bai hara iristean eta bai agurtzean, besoak irekita hartu nindutela sentitu nuen. Bizipen horiek, gure artean hain eskasak izanik, hara berriro joateko nahia piztu zidaten.



### Bigarren aldian nola joan ziren tailerrak?

Bigarren proiektua lehendik egindako esperientziaren ondorioa izan zen, bai eta haren bitartez ikasitako ikasgaien emaitza ere. Bigarren aldi horretan, eta buztingintza tailerraren konplexutasunaren ondorioz, egokiago ikusi zen bakarrik pintura tailerra antolatzea; gainera, aurten zentro gehiagok parte hartzen zuten, haiek egitea konplexuagoa zen. Era berean, aurreko esperientzian oinarrituta, proiektua askoz modu errealago batean eta tokia askoz hobeto ezagutuz gauzatu zen.

Pintura tailer horretan, hainbat zentrotako haur eta nerabeen adierazpen plastikoa landu nahi zen, gelan haiek epaituko ez zukeen toki bat eta askatasunez margotuko zuketuen guzua bat sortuta, betiere haien sortze ahalmenaren garapenari errepikatuz. Baldintza horien eraginez sortutako jolas giroan, haiek beren posibilitateak aurkitzen joan ziren, eta beren buruaren ezagutza garatzeko laguntza bihurtu zen.

Horretarako, beren esku kolore paletadun mahai bat jarri zen, kolore bakoitzerako bizpahiru pintzelekin eta kartoi mehe zuri batzuekin batera. Hortik aurrera, haurrek beraiek aurkitu zituzten beren ikasketaren posibilitateak. Helburua zen haien artean lan egiteko modu bat sartzea, nolabaiteko autonomia lortu eta beren beharren arabera askatasunez erabili ahal izateko.

Oraingoan, jarduerak Nikam eta Khese ikastetxeetan, Hadapsar eta Koregaon Park eguneko zentroetan, Yashodhara harrera etxean eta Sumati Dham-en burutu ziren. Azken horretan, desgaitasun mentala duten gazteentzako zentro bat dago, Yashodhara etxearen campus berean kokatuta dagoena.

Nikam-en irakasleen erantzuna oso ona izan zen, eta beti prest agertu ziren edozein arazo konpontzeko. Khese-n, esperientzia ez zen hain ona izan, batzuetan erakundeak eta hainbat irakaslek axolagabekeriak jokatu baitzuten, baina haurrek eskaintutako harrera esker onekoa izan zen, beti bezala. Bi ikastetxeetan, diziplina motaren ondorioz, haur askok eta, batez ere, gazteenek zailtasunak dituzte beren adierazpen prozesuan. Bertan parte hartu zuten haur eta nerabeek izandako esperientzia kontuan hartuta, horrelako tailerrak oso onuragarriak dira, normalean jasotzen duten heziketa mota ez bezala, hezkuntza sortzailearen motaren bat falta baitaie.

Hadapsar eta Koregaon Park eguneko zentroetan, haurrak solteagoak ziren eta askatasun handiagoz lan egin zuten, nahiz eta haiekin lehen

harremana izan. Yashodhara etxean, aurreko saioetatik ezagunak nituen haur asko, eta poz handia eman zidan berriro haiek ikusteak eta haiekin batera ordu batzuetan gozatu ahal izateak.

Azkenik, Sumati Dham-eko lana izan zen atseginen niretzat, eta oso emaitza onak izan zituen. Irakasleen harrera eta laguntza nabarmena izan zen, baina tailerrean neska-mutikoak buru-belarri aritu izana ikaragarria izan zen. Gutxi ziren, eta nerabeak edo pixka bat zaharragoak izateak denbora eta konstantzia handiagoa izatea ekarri zuen beste zentro batzuetan baino. Buru arazoak edo desgaitasunak zituztela kontuan hartuta, bakarrik bi saio nahikoak izan ziren emaitza handiak ikusteko. Benetan, haur haien jarrera bihotzeraino iritsi zitzaigun, eta esperientzia ahaztezina izan zen.

### **Nola gertatu zen zure seme-alabak zurekin batera joatea? Zer inpresio izan zuten?**

Nire alaba Garazik (21 urte) afektuzko harremanak ditu hainbat pertsonarekin aurreko bidaietatik, eta berriro ikusi nahi zituen. Hori horrela, nire seme Igorrentzat (17 urte), hain aberatsa eta desberdina den kultura bat ezagutzea balio handiko esperientzia izango zela pentsatu nuen, nerabea den aldetik. Beraz, gurekin batera joatera animatu nuen. Berez, hango egonaldia "argigarria" izan zen harentzat, berak dioenez, "pobretzat" hartutako pertsonak eta herrialde "garatu" bateko eguneroko ingurunea modu berri batez ikusteko aukera eman baitzion.

Pertsonalki, oso lagungarria izan zen niretzat seme-alabek momentu guztietan parte hartzea eta inplikatzeko, bai materiala eraman eta prestatzean eta bai eskolak ematean; uste dut hango neska-mutikoentzat ere hala izan zela, nire seme-alabak hurbilagoak baitziren adinagatik.

### **Zure esperientzia laburtu al dezakezu hitz gutxitan?**

Nik esango nuke borondatezko pertsonaren ekarpena berak jasotzen duena dela, zeren eta bidaietan, hau da, ohiko bizimoduaren parentesi horretan, norbera harberago baitago eta zure ekarpena jaso dezaketen pertsona horiek ematen dizute beren giza berotasunaren bidez, beren baloreen bidez eta beren jarrera irekiaren bidez. Hain da handia Mendebaldeko itxitasunaren eta hoztasunarekin dagoen aldea!

### **Zergatik gomendatuko zenieke horrelako borondatezko lana beste pertsona batzuei?**

Lehenik eta behin, beste kultura bat ezagutzeko aukera ematen duelako. Bigarrenik, lehenago esan dudan harberatasunaren ondorioz, handik ekarritako inpresioak nahiz zurekin dauden haurren eta pertsonen begiradetan antzematen den irribarrea ikaragarritzko opariak direlako.

### **Zerbait gehiago esan nahi duzu?**

Bi bidaietan, elkartrukatze eta konpartitze helburua erruz bete zen, partaideen erantzunari esker. Izan ere, partaide horiek elkar aberasten lagundu zuten beren gogoarekin, irribarrekin, emozioekin, sentsibilitateekin eta baikortasunarekin.

Gainera, 2011ko tailerretan, zorte handikoa nintzela sentitu nuen, borondatezko beste langile batzuekin batera lan hori egin ahal izateagatik. Benetako bidailagunak izan ziren lankidetzak eta hazkuntza lan horretan, eta haiekin hainbeste momentu berezi konpartitu genituen, bihotzean gordeta geratzen diren esperientziak bizitzeko aukerarekin.

Eskerrak ematen dizkiot Fundazioari, egingdako lan guztiagatik. Nabarmendu nahi dut aukera berriak irekitzeko duen borondatea, horrek ahalbidertatu baitu guztion artean haur horien bizitza eta, zalantzarik gabe, gurea aberastea.

